

## Emozioetan zehar bidaiatzeko kontzertu txundigarria

**Social Antzokia** · maiatzak **24** de mayo **12:30** (igandea · domingo)

**Soinuak Haizean**

**Jon Casamayor eta Leire Orbe** (aktoreak actores)

**Pablo de Luna** (biolina violín)

**Irati Castro Henrich** (viola)

**Ricardo de Lucas** (kontrabaxua contrabajo)

+3 urte(familiarra) · +3 años (familiar) · **6€**



---

### Oharra

Ikuskizun musikal honek laguntzen digu gure emozioak bereizten, estimatzen eta bideratzen. 7 emozio landuko dira musikaren bidez, eta atrezzo koloretsu batekin irudikatuko dira, soinuen eta irudien bidaia batean.

Soinuak Haizean-en abiapuntua da musika klasikoak askotan izan ohi duen seriotasun-etiketa ezabatu nahi izatea; betiere, eskaintzen dugun musika-produktuaren kalitateari eragin gabe.

---

### Kontzertu didaktikoa

Ikuskizun musikal honetan, **Emozio** gure emozioak bereizten, estimatzen eta bideratzen laguntzen digu, Beethoven, Prokofiev, Strauss, Korsakov, Mussorsgy eta Chopinen musikaz lagunduta, besteak beste. **7 emozio** landuko ditugu **musikaren** bidez, eta atrezzo koloretsu batekin irudikatuko ditugu, **soinu eta ikusizko bidaia** batean. Elementu horiei esker, Emozioek-ekin batera garraiatuko gara batetik bestera, eta, umoreaz baliatuz, emozio bakoitzaren garrantzia hausnartuko dugu, emozio onak

eta txarrak dauden, gure kideen emozioak errespetatzearen garrantzia... Txikiek eta handiek ikasi eta dibertitu egingo dira bidaia musikal zirrargarri honetan!

2021ean estreinatu zenetik, ikuskizuna dozenaka aldiz antzeztu da Euskalduna Jauregian, Bilboko Campos Eliseos Antzokian eta nazioko eta nazioarteko hainbat jaialditan. 2024ko urtarrilean, Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin (BOS) elkarlanean, ikuskizun horren orkestra sinfonikorako egokitzapena estreinatu zen, eta aurtengo denboraldian, besteak beste, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren (Baluarte Txiki) familia-programazioaren eta Kursaalaren Donostiako Hamabostaldiaren esparruan aurkeztuko da.

---

## **Soinuak Haizean**

**Soinuak Haizean** 2019an sortu zen, musika klasikoa haur, gazte eta familiei hurbiltzeko helburuarekin. Urte hauetan, konpainiak **Musika Bulegoa 2025ko** sarietako epaimahaiaren saria jaso du, eta bere ikuskizunak gure inguruko areto nagusietan aurkeztu ditu, besteak beste, Euskalduna Jauregian eta Campos Eliseos Antzokian (Bilbo), Kursaalaren (Donostia) edo Baluarte Auditorioan (Iruñea).

Bestalde, Soinuak Haizean elkarteak berrehun **kontzertu pedagogiko eta didaktiko** baino gehiago antolatu ditu Euskadiko, Nafarroako eta Kantabriako ikastetxeetan sortu zenetik.

Haurrentzako eta familientzako ikuskizunak ekoitzi ditu, hala nola **"Barrokoko kontzertu barrokoena"** (2019), **"Emozioetan zehar bidaiatzeko kontzertu txundigarria"** (2021) eta **"Eko eta itsasoa"** (2025). 2022an **"Itsasoa laino dago"** ikuskizuna sortu zuen, dantza tradizionala eta garaikidea, zuzeneko musika eta antzerkia batzen dituen.

**2024**an Soinuak Haizean taldeak **"Emozioetan zehar bidaiatzeko kontzertu txundigarria"** ikuskizunaren orkestra sinfonikorako egokitzapena aurkeztu du Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin egindako zazpi kontzertuko viran eta 2026an Mozarten **"Bastian eta Bastiana"** operaren euskararako eta gaztelaniarako egokitzapena estreinatuko du.